

EUSKARA

URRIA AZAROA ABENDUA 2019



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

Bilbao

consonni radio Az-rekin



consonni argitaletxeak, Az-ko Kolektibo Egoiliarra den aldetik, [consonni radio Az-rekin](#) sortu du, hitzarekin eta irratia entzutearekin esperimentatzeko eta kultura kritikoa zabaltzeko xedez.

Hurrengo hilabeteetan, deialdi publikoaren bidez hautatutako azken programak izango ditugu irratian entzungai:

Voces que caminan Gabriel Villotarena da, eta soinu-dokumentalaren eta saiakeraren arteko formatu hibridoak proposatzen du. Musikak, ahotsak eta landako grabazioak bateratuz sortutako soinu-collagea du zati askotan; eta isiltasunaren bilaketan eta gorputzak mugitzean ateratzen duen soinuaren artean dabil.

Phoenix Ragazza Jone Uriarte eta *Lur Olaizolaren* lana da. Euskara hutsean egindako programa honek zinema eta irratia arteko erlazioa proposatzen du ikuspegi feministatik, begiak eta begirada entzute bilakatzeko.

T.R.A.U.M.A. Magda De Santok eta *Duen Sacchik* gidatutako irratsaioa da, queer/Kuir/Cuir komunitateko artista, ikerlari, kuratore, aktibista, idazle, sortzaile eta langileen diasporako eta migrazioko esperientziatik abiatuta sortutako kultura publikoak partekatuzera gonbidatzen duena.

Bestalde, [consonni radio Az-rekin](#)-en emankizun-zerrendan finkatuta dauden programa hauek jarraipena izango dute: *Voces en el jardín*, Alicia San Juanekin; eta *¿Qué haría Barbarella?*, Arrate Hídalgoekin eta Laura Lazcanorekin.

Entzun gaitzazu streaming bidez, edo zatoz saioaren bat zuzenean entzutera, atarian kokatutako gure irradi-estudio atseginean grabatzen ari garen bitartean. Eta emanaldiren bat entzuterik ez baduzu, ez kezkatu: online ere entzun gaitzakezu, consonni-ren webgunean, AZrean, edo ivoox eta iTunes moduko irradi-plataformen bidez.

consonni



Urria > Urtarrila
Asteartero

18:00

Kulturen Ataria

Sarrera dohainik



 consonni.org

 [@consonniart](https://www.facebook.com/consonniart)

 [@_consonni_](https://twitter.com/_consonni_)

 [@_consonni_](https://www.instagram.com/_consonni_)

 [consonni radio](http://consonni.radio)